



DATUA

-%4,1

Aurten ere behera egiten ari da gasolioaren kontsumoa. Nafarroan, 59.774 tona salerosi ziren otsailean, iaz baino %4,1 gutxiago. Gasolinaren kontsumoa, berriz, %10,9 handitu da. Saldutako erregaien %90 da gasolioa.

Nafarroako Gobernuak sei milioi euroren beste mailegu bat egin dio Sunsundeguiri

ENPRESAK— Sunsundeguiak akordio bat egin zuen iaz Volvorekin, haren 9700 eta 9900 modeloen karrozeriak egiteko. Horren bitartez, Altsasuko fabrikaren ekoizpena orain halako bi izango da, eta laurehun langile gehiago hartuko ditu. Altsasuko enpresak, ordea, kontratu hori betetzeko adina likideziaz ez du, galerak izan baititu azken urteetan, eta Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen ari da. Iazko abenduan lau milioiren mailegu bat egin zion Sodena sozietatearen bitartez, eta atzo beste sei milioi euroren beste bat egitea baimendu zuen.

